

Aurrera

Begira

2017

GAZTEEN
AURREIKUSPENEI
BURUZKO
ADIERAZLEAK



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
POLÍTICAS SOCIALES





ZER DA *AURRERA BEGIRA*?

Aurrera Begira Gazteen Euskal Behatokiak urtero burutzen duen ikerketa da, honako helburu hau izanik: Euskadiko gazteek nola antzematen duten oraina eta, epe laburrean, zeintzuk diren beraien etorkizunerako aurreikuspenak jakitea.

Ikerketa honek 2017an bere bosgarren emanaldia aurkezten du. Honen bidez gazteen egoera ebaluatzeko eta jarraitzeko tresna erraza eta sintetikoa eskaini nahi zaie bai herritarrei bai gazteriaren arloan erantzukizun politiko edota teknikoak dituzten guztiei.



ZEHAZTASUN TEKNIKOAK

IKERKETAREN DISEINUA ETA EMAITZEN ANALISIA

Gazteen Euskal Behatokia.

METODOLOGIA


Kuantitatiboa, inkesta telefonikoen bidez egindakoa.

INKESTA KOPURUA

1512 inkesta 15 eta 29 urte bitarteko gazteei.

INKESTAK EGITEKO EPEA

2017ko urriaren 18tik 31ra.





GAZTEEN AURREIKUSPENEI BURUZKO 10 ADIERAZLE

- 1 Egungo egoeraren balorazio indizea
- 2 Norberaren poztasun indizea
- 3 Bizitzaren alderdien balantzea
- 4 Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua
- 5 Lana aurkitzea aurreikustea
- 6 Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea
- 7 Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea
- 8 Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea
- 9 Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea
- 10 Etorkizunarekiko konfiantza indizea




1

EGUNGO EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA

DEFINIZIOA:

Norberaren egoera pertsonalari, gazteen egoera orokorrari eta Euskadiren egoerari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.




Egungo egoeraren balorazioak hobera egiten jarraitzen du eta 100 puntutik 69 lortu ditu, 2013an baino bederatzi puntu gehiago.

2

NORBERAREN POZTASUN INDIZEA

DEFINIZIOA:

Norberaren egoerari buruzko hainbat arlo aintzat hartuta (lan egoera edo lanarekiko aurreikuspenak, ikasketak edo prestakuntza maila, familia, astialdia edo denbora libre, lagunak, harreman sentimentalak edota sexualak, osasuna, itxura fisikoa, hilean duten dirua eta familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasua kontuan izanda), bakoitzarekiko poztasunari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.




Egoera pertsonalarekiko gogobetetasunak altua izaten jarraitzen du eta balorazio altu horretan eragin handiena ondoko bizi-alderdiek dute: familia, osasuna eta lagunak.

DEFINIZIOA:

Bizi-alderdien balantzeak erlazioan jartzen ditu, alde batetik, gazteek beren bizitzako hamar alderdiri ematen dieten garrantzia eta, bestetik, haiekiko gogobetetasuna, kasu bietan 0-100 eskala erabiliz. Erlazioa bi ardatzetako grafiko batean adierazten da. Grafiko horretan X ardatza gogobetetasunari dagokio eta Y ardatza garrantziari.

Lana eta dirua dira alderdi defizitarioenak; horiei gazteek garrantzi handia ematen dieten arren haiekiko gogobetetasuna txikiena da.




4

LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA

DEFINIZIOA:


Urtebetean enplegua galtzea edo beren lan-egoera okertzea oso edo aski litekeena delako ustea duten langile gazteen ehunekoa.



Lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskuak bederatzi puntuko jaitsiera izan du 2016tik 2017ra eta hogeita lau puntukoa seriea hasi zenetik hona.

DEFINIZIOA:

Urtebeteko epean enplegua aurkitzea espero duten langabe gazteen ehunekoa.




Urtebeteko epean lana lortzeko itxaropenak bederatzi puntuko igoera izan du 2016tik 2017ra eta hogeita lau puntukoa 2013tik hona.

6

PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA

DEFINIZIOA:

Ikasketak bukatutakoan, prestakuntzari lotutako enplegua aurkitzea espero duten ikasleen ehunekoa.




Ikasleen artean gora egin du beren formakuntzari lotutako lana lortzeko itxaropenak. Ikasketak bukatzean lortuko dutela uste dute ikasleen % 74k, 2013an izandako portzentajea baino hogeita zortzi puntu altuagoa.

7

DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEA

DEFINIZIOA:


Etorkizunean, joan nahi ez badute ere, atzerrira lan egitera emigratu beharko dutela uste duten gazteen ehunekoa.



Lana izateko atzerrira derrigorrez emigratu beharraren aurreikuspenak behera egiten jarraitzen du eta, nahi ez badute ere, emigratu beharko dutela uste dutenen portzentajea 2013an izandakoa baino bost puntu txikiagoa da 2017an.

DEFINIZIOA:


Emantzipazio-proiektuak urtebeteko epean gauzatzerik izango ez dutela usten duten gazteen ehunekoa, gurasoen etxetik atera nahi izan arren horretarako aukerarik ikusten ez dutelako, edo, bestela, emantzipatuta egon arren gogoz kontra gurasoen etxera itzuli beharko dutela uste dutelako.



Gurasoen etxetik emantzipatu nahi arren horretarako aukera gutxi edo batere ez daukatela edota beren kontura bizi arren gurasoen etxera nahi izan gabe itzuli beharko dutela uste duten gazteen ehunekoak berdin jarraitzen du. Bigarren talde horrek pisu txikia du adierzlean (% 1 baino ez).

DEFINIZIOA:


Zailtasunei aurre egiteko beharrezkotzat jotzen diren gaitasun batzuk aintzat hartuta (langilea, arduratsua, kualifikatua, parte-hartzailea, ekintzailea, idealista eta autonomoa izatea), Euskadiko gazteek gaitasunok zein mailatan dituzten iritziaren batez besteko puntuazioa 0tik 100era doan eskalan.



Gazteen gaitasunekiko konfiantza hiru puntuko jaitsiera izan du 2016tik 2017ra baina, hala ere, handia izaten jarraitzen du eta seriearen hasierako puntuazioa baino altuagoa.

DEFINIZIOA:

Norberaren egoerak, gazteenak eta Euskadirenak hurrengo 5 urteetan izango duten bilakaerari buruzko usteen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.



Hurrengo bost urteetan egoerak hobera egingo duenaren konfiantza handitu da eta 2013an izandakoa baino hamaika puntu altuagoa da orain.



ONDORIOAK



NABARMEN HOBETU DIRA LANAREKIKO AURREIKUSPENAK

Langabezian dauden gazteen % 78k datorren urtean lana lortzeko itxaropena dute, 2013an baino portzentajezko hogeita lau puntu gehiago. Bestetik ikasleen % 74k uste dute ikasketak bukatzean beren formazioarekin lotutako lana aurkituko dutela; orain dela bost urte ikasleen % 46k baino ez zuten itxaropen hori. Bestalde, lanean dabilzan gazteen artean lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arrisku-pertzepzioak 24 puntuko jaitsiera izan du; % 57koa izan baitzen 2013an eta % 33koa 2017an. Azkenik, derrigorrez emigratu beharra aurreikusten duten gazteak ere gutxitu dira, % 16tik % 11ra.

EPE LABURREAN EMANTZIPATUTA BIZI IZATEAREN ITXAROPENAK EZ DU HOBERA EGITEN

Gazteen % 46k urtebeteko epean beren kontura bizi izatea nahi izango lukete baina ez dute uste hori gauzatuko dutenik; portzentaje hori 2013an jasotakoaren antzekoa da (% 45).

HOBETU DA EGUNGO EGOERAREN BALORAZIOA BAI ETA ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA ERE

Lanarekin lotutako aurreikuspenen hobekuntzak egungo egoerari balorazio positiboagoa ematea eta etorkizunean konfiantza handiagoa izatea dakar. Etorkizunarekiko konfiantza indizeak 75 puntu lortu ditu 2017an, 2013an baino hamaika gehiago.



AURRERA BEGIRA: 5 urteko bilakaera





EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
POLÍTICAS SOCIALES



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud